



BERGARAKO UDALA

ADMINISTRARIEN KONTRATAZIO-PREMIEI ERANTZUTEKO LAN-POLTSIA OSATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da aldi baterako kontratazio edo izendapen premiei erantzungo dien administrarien lan-poltsia osatzea, lehiaketa-oposizioaren bidez.

Halaber, administrari laguntzaileen aldi baterako kontratazioen premiei ere erantzuteko erabiliko da.

Lanpostua sailkapeneko **C1 sailkapen-mailakoa** da eta lanpostu edo plaza bakoitzari dagokion soldatamaila du. Halaber, 3. hizkuntz eskakizuna dagokio, derrigorrezkoa.

Administrarien lan-poltsia erabiliko da Bergarako Udalean sortzen diren behin-behineko beharrei erantzuteko.

Halaber, horrela baimenduko balute izangaiet, beste udal edo entitate publikoei lagako zaie, aldi baterako kontratazio-premia dutela eta propio eskaera egingo balute.

Aurreikusten den lan-poltsaren iraupena luzatu ahal izango da, administrari laguntzaileenari dagokionean betiere lan-poltsa espezifikoak osatzen ez bada aurretik. Horrela izango balitz, hasierako urtebeteara pasatu ondoren azken hauek lehentasuna izango dute dagozkien kontratazio-premiatarako.

2.- Betekezunak

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, Udalean dauden administrari-plazei dagozkien edozein funtziotz dira, eta beste batzuen artean:

- 1.- BAZeko plazari dagozkion denak.
- 2.- File Maker-eko datu-basean espedienteen informazioa sartu/kontsultatu.
- 3.- Udal espedienteetik hasiera eman eta jarraipena egin....
- 4.- Udaleko espedienteen inguruko tramiteen informazioa ematea herritarrei, bertaratzen direnei zuzenean edo telefonoz.
- 5.- Jakinarazpenen tramitazioa bideratu eta bukatzea.
- 6.- Hirugarrenen datu-basea osatu.
- 7.- Espedienteak gorde, sailkapenaren arabera.
- 8.- Espedienteetan tramiteen jarraipena egin.
- 9.- Biztanleen erroldaren ziurtagiriak atera.
- 10.- Jakinarazpen elektronikoak egin.
- 11.- Fakturak erregistratu eta jarraipena egin.
- 12.- Web-orrien informazioaren jarraipena egin, zuzentasuna, egokitasuna...
- 13.- Administrarien kategoriari dagokion edozein lan, agintzen zaionean.



Aldi baterako kontratatzen den langileak kontratatzen den lanpostuaren premietara egokituko du bere lan-equitegia, zerbitzuaren premietara hain zuzen.

3.- Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokie, deialdian parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiak:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Ituneko jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

- b) 16 urte beteta izatea.
 - c) Batxiler titulua, LHko goi mailako teknikariarena edo baliokide den titulua izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, titulua homologatuta dagoela dioen ziurtagutunaren jabe izatea.
 - d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
 - e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
 - f) 3. Hizkuntza Eskakizuna derrigorrezkoa.
 - g) Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatiko tasa ordaindu izana.

Azterketa egiteko tasa ordaintzeari dagokionean (10 euro), beti transferentzia bidez egingo da eta eskabideak egiteko aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan, derrigor adierazi beharko dira espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia.

Transferentzia-aqiria eskaerarekin batera aurkeztuko da.

Ordainketa eskaerak egiteko epean egin beharko da kontu korronte honetan:

KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569

Parte hartzeko a), b), c), f) eta g) ataletan jasotako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak eskaera-orriarekin batera aurkeztuko dira. Kopiak izango dira.

4.- Eskabideak

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan osatuta aurkeztuko dira **2021eko abuztuaren 30etik irailaren 21era arteko epean (epe horretan jaso ez direnak kanpo utziko dira).**

Eredu ofizial hori oinarri hauei erantsirik doa, eranskin gisa; eta eskuratu ahal izango da, halaber, Bergarako Udaletxeko Bergararen Arreta Zerbitzuko bulegoan (BAZ bulegoan; 8:00etatik 15:00etara bitartean, astelehenetik ostiralera) eta udalaren webgunean (www.bergara.eus).



Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

a) Hautagaietan adierazi beharko dute deialdiko Bigarren Oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.

b) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia; edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena, beste estatu bateko hautagaien kasuan.
- Eskatutako tituluaren fotokopia.
- 3. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela edo euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideetakoren bat badaukala egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatiko 10 euroko tasa ordaindu izanaren agiria eta, hala badagokio, hobaria justifikatzen duen dokumentazioa ere.
- Eskabidean adierazitako merezimendua egiaztatuko dituzten agiriak, merezimenduen fasean ebaluatuak izateko.
- Oharra: Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu ez diren merezimendua ezta eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentuekin edo instantziak aurkezteko epean egiaztatu/entregatu ez direnak ere.

Halere, eta salbuespen gisa, IT txartela bidez egiaztatzeko agiriei dagokionean, bakar bakarrik IT txartelari dagokion agiri edo kopiak 2021eko urriaren 29a arteko epean aurkeztu ahalko dira.

Dokumentu horiek fotokopiak izango dira eta honako hauek izan beharko dira gutxienez eta ezinbestekotzat izanik agiri mota eta edukiari dagokienean:

1.- Lan edo zerbitzuen esperientziari dagokionean:

Egindako zerbitzuak ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira. Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak zerbitzu horiek bete diren Administrazioak emandako agirien bitartez egiaztatuko dira, horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira emplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtziokoak.

Bergarako Udalean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez kreditatu beharrik ez da izango eta hautagai bakoitzaren expedienteetan ageri diren datuen arabera ebaluatuko dira.

Enpresa pribatuaren inoren kontura egindako lana egiaztatzeko, enpresa-ziurtagiriak (betetako funtziokoak zehaztuta) eta lan-kontratuak aurkeztu beharko dira.

Kasu guzietan, Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren agiria ere aurkeztuko da, bai administrazioan bai enpresa pribatuaren egindako lana ziurtatutzat konsideratu dadin.

2.- Prestakuntza. Erakunde ofizialek edo haien homologatutakoek emandako ikastaroak izango dira eta bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena ordutan jaso beharko dituzte baloratuak izateko.

Informazio hori jasotzen ez duten agiriak ez dira kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaaren esku egongo da.

c) Hautagaietan adierazi beharko dute Euskadiko Komunitate Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten azterketen fasesko ariketak.



Eskabideak, era berean, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira (39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearena).

Izan ditzaketen egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimendua zehatz adierazi ez izana, horiek egiatzatzeko agiriak eskabideari erantsi ez izana, edo oinarriean adierazitako behar beste informazioa ez duten agiriak. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioren bat hautematen badu, zuzendu ahalko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko.

Datu pertsonalak babestea

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak (2016ko apirilaren 27koak, Datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak – Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten baitan kokatzen dira. Tratamendu horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa-prozesutik sortuko den lanpoltsa kudeatzea ere.

Bergarako Udala, datu-tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak, lege-betebehar baten baitan tratatzen direlako, eta baita datuak ere beharrezkoak direlako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko tratamendua beharrezkoa delako. Halaber, izangaien berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu-lagapen horren helburu bakar eta esklusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu-eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egiteko zein datuok mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre Plaza, 1, 20570, Bergara (Bergarako Udala).

Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoan erreklamazioa jarri ahal izango du izangaiak. Helbidea: Beato Tomas de Zumarraga, 71 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, Udaleko datu-babesaren ordezkarirekin jarri ahal izango da harremanetan, datuen tratamenduarekin lotutako edozein afera dela eta, honako posta helbidera mezua bidalita: dbo@bergara.eus.

5.- Izangaiak onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendak irailaren 23an jarriko dira ikusgai Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian. Udalak bi egun naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko.

Behin-behineko zerrendak, besterik gabe, behin betikotzat joko dira erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo baztertuak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrendak onetsiko ditu Udalak, eta udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian ere argitaratuko ditu.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi-errekursoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da, onartuen eta baztertuen zerrenda Bergarako Udaleko iragarki-taulan argitaratzen



den egunaren bihamunetik zenbatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurso aurkez dezan.

Aldez aurretik, eta hala nahi izanez gero, berraztertze-errekursoa jarri ahal izango da hilabeteko epean.

6.- Epaimahaia

6.1. *Osaera:* Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritako. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Langileen ordezkariek proposatutako batek hartuko du parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda udalaren iragarki-aulan eta Bergarako Udalaren web-orrian argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatuta.

Udalean presentzia duten alderdi politikoen ordezkariek parte har dezakete begirale moduan.

6.2. *Espezialitatea:* Epaimahaiaaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto-eskubidea duten kide guzti-guztiekin izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza-arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. *Abstentzia eta errefusatzea.* Epaimahaia kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan ohartemandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaien mahaikideak ezetsi ditzakete aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

6.4. *Aholkulariak:* Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egoki iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. *Eraketa eta lan egitaraua:* Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze-ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezkoko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa prozedura:

a) Epaimahaiaaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren araberakoa izango da. Epaimahaia ezingo da osatu, ezta jardun ere, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahaia kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinaketa egonez gero, epaimahaiaaren lehendakariaren kalitezko botoa erabiliko da berdinaketa hausteko. Epaimahaia kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango

b) Epaimahaia, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitzkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko diru.

c) Izangai batek ere ez balitu gaindituko baztertzaileak diren proba guztiak, deialdia bete gabe geratu dela aitortuko da.

7.- Oposizioaldiko ariketak



Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian argitaratuko da lehenengo ariketa egiteko deialdia, eta han adieraziko da azterketa zein egun, ordu eta tokitan egingo den. Ondorengo deialdiak Epaimahaiak iragarriko ditu aditzera emateko egoki deritzen moduan.

Honako ariketa hauek osatuko dute:

1. Lehenengo ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzalea

1.- Gaitegi orokorraren (I. eranskina) inguruan, eginkizunen inguruan eta Bergarako Udaleko Tramiteen katalogoa jasotako prozeduren inguruan: 50 galderako –gehi erreserbako 5 galderast erako edo erantzun laburreko azterketa bat izango da.

Azterketa honi gehienez 25 puntu emango zaizkio, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Galderen puntuazioa eta okerreko bakoitza zigortzen den edo ez epaimahaiak erabakiko du.

2.- Halaber, azterketa hori gainditu duten izangaietako praktikoa(k) egin beharko d(it)u(z)te. Azterketa horiek izango dira WEB gunean eskuragarri dagoen "Tramiteen katalogoa"ren inguruan eta gaitegian jasotako gaietako zerikusia izanik planteatzen diren galdera edo ariketen inguruan.

Bigarren azterketari gehienez 30 puntu emango zaizkio, eta proba guztien baturan gutxienez 15 puntu lortu beharko dira gainditua izateko.

2. Bigarren ariketa: Azterketa psikoteknikoa eta/edo elkarrizketa pertsonala, nahitaezkoa izangai guztientzat eta ez-baztertzalea (40 puntu).

Aurreko lehenengo ariketa gainditu duten izangaietako praktikoa eta/edo elkarrizketa pertsonala egingo zaie, hautagaien egokitze-maila baloratzeko bete behar den lanpostuaren giza eta teknika alorreko ezaugarriekiko.

Ariketa honi gehienez 40 puntu emango zaizkio eta egingo diren proba bien puntuazioaren erdia gainditu beharko da eta gutxienez 25 puntu atera beharko dira ariketa gainditzeko, proba bakoitzaren puntuazioa epaimahaiak jakitera emango duelarik aurrez.

3. Hirugarren ariketa 3. hizkuntza-eskakizunari dagokion euskara-maila egiazatzeko

Ezagura hau egiaztu ahal izango da Euskara Departamentuak egingo duen idatzizko eta ahozko proben bitartez. "Gai" edo "Ez-gai" kalifikatuko da.

Proba horrek barne eragina soilik izango du eta udalak ez du inolako agiririk emango, udalean bertan erabiltzeko ez bada.

Halere, 3. hizkuntza-eskakizuna izatea honela ziurtatu ahalko da:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria, 3. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat egiaztu izana frogatzen duena.
- Baliokide diren beste ziurtagiriak, betiere euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera.

Honako hauek dira euskara-tituluen arteko baliokidetza jasotzen duten araudiak: 297/2010 Dekretua –azaroaren 9koan, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen dena– eta 47/2012 Dekretua –apirilaren 3koan, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza tituluen eta ziurtagiriak bidez egiaztatzen salbuesteko dena–.

8.- Merezimenduen fasea



Epaimahaiak ondorengo merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta bakarrik, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira eskabideak aurkezteko epearen barruan, eta betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuko delarik.

Lehiaketaldian **gehienez ere 31 puntu** lortu ahal izango dira.

Bazterzaileak diren ariketa teoriko-praktikoak gainditu dituztenen artean, hauek baloratuko dira, betiere eskaera-orrian aipatuta izan eta gainera egiaztatuta izan badira:

- 1.- 2016tik eta 2021eko urriaren 31a bitartean ateratako IT txartela(k) izatea: gehienez **ere 6 puntu**. Informatikari buruzko ondorengo ezagutzak baloratuko dira:

A) Word-eko IT Txartela (Word 2010 edo geroagokoa) ziurtatzen bada: oinarrizko mailakoa puntu 1 eta maila aurreratua 2 puntu.

Titulu bakarra baloratuko da maila bakoitzeko, atal honetan deskribatutako ziurtagiri bat baino gehiago dituela egiaztatzen badu ere.

B) Excel-eko IT txartela (Excel 2010 edo geroagokoa) ziurtatzen bada: oinarrizko maila: ponarrizko mailakoa puntu 1 eta maila aurreratua 2 puntu.

Titulu bakarra baloratuko da maila bakoitzeko, atal honetan deskribatutako ziurtagiri bat baino gehiago dituela egiaztatzen badu ere.

C) Outlook-eko IT Txartela XP ziurtagiria izateagatik: oinarrizko maila puntu 1.

Titulu bakarra baloratuko da maila bakoitzeko, atal honetan deskribatutako ziurtagiri bat baino gehiago dituela egiaztatzen badu ere.

D) IT Microsoft oficce Txartela ziurtatuz gero: oinarrizko maila 2 puntu.

Titulu bakarra baloratuko da maila bakoitzeko, atal honetan deskribatutako ziurtagiri bat baino gehiago dituela egiaztatzen badu ere.

E) Ofimatinakako IT Txartela ziurtatuz gero: oinarrizko maila 2 puntu.

Titulu bakarra baloratuko da maila bakoitzeko, atal honetan deskribatutako ziurtagiri bat baino gehiago dituela egiaztatzen badu ere.

Puntuazio horiek emango zaizkie Informazioaren Gizartearen Euskadiko Planak Gunearen zentro publikoetan eskuragarri jartzen duen IT txartela egiaztatzen duten hautagaiei.

- 2.- Herritarren arreta zerbitzuan administrari laguntzailearen edo administrariaren kategoriarekin Bergarako Udalean izandako esperientzia: hileko 0,25 puntu, gehienez **ere 6 puntu** arte.
- 3.- Bergarako Udalean administrari lanetan izandako esperientzia: hileko 0,25 puntu, gehienez **ere 6 puntu**.
- 4.- Bergarako Udalean lan-esperientzia administrari laguntzailearen lanetan: hileko 0,15 puntu, gehienez **ere 5 puntu** arte.
- 5.- Beste udaletan edo enpresa pribatuan administrarien edo administrari laguntzaileen lanetan lan-esperientzia izatea: hileko 0,15 puntu, gehienez **ere 5 puntu** arte.
- 4.- Hizkuntzen ezagutza: Frantsesa, ingelesa edo beste batzuk, betiere hizkuntzaren ezaguerari dagokion egiaztagiri ofiziala erantsi bada, B2 edo C1 mailakoa denean (Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera –Marco Común Europeo de Referencia (MCER)–): hizkuntzako eta maila bakoitzeko agiriko 0,25 puntu. Hasta un máximo de 3 puntos



- 5.- Ikastaroak: Ikastaroen 10 orduko multzo bakoitza 0,20 puntuarekin baloratuko da eta gehienez ere 1,5 puntu arte. Baloratuko dira azken bost (5) urteren barruan egindakoak eta betiere arlo hauetakoak badira:
 - 1.- Herritarren arretari buruzkoak
 - 2.- Datuen babesaren ingurukoak
 - 3.- Kontabilitateari buruzko formazioa
- 6.- Administrazio Kudeaketako teknikariaren (administrariaren edo administrari laguntzailearen) erdi mailako edo goi mailako lanbide-heziketako titulaziona izatea (ez denean deialdian parte hartzea erabili den titulu edo agiri bakarra):
 - 1.- Goi mailakoa: 1 puntu
 - 2.- Erdi mailakoa: 0,50 puntu
- 7.- Unibertsitateko gradu edo goi mailako edo erdi mailako titulaziona izatea (ADE, Zuzenbidean edo Enpresagintzan eta antolakuntza eta baliabideen kudeaketaren arloko formazioa): 2 puntu bakoitzeko eta gehienez ere 4 puntu arte.

9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuak eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arrazoirengatik bada ere, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa(k) burtu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian argitaratuko da ariketak gainditu dituzten izangaien zerrenda.

10.- Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak bi faseetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntueta berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Bigaren ariketan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Proba praktikoan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- c) Aurreko denetan berdinketa balego zozketa bidez egingo da.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuaren araberako hurrenkeran antolatuta: puntu gehienekotik gutxienekora.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lan-poltsarako gutxieneko baldintzak betetzen dituenik, lan-poltsa hutsik geratu dela aldarrika daiteke.

Lan-poltsarako proposatuak izan diren izangaien, jakitera emango den epean, deialdian parte hartzeko oinarriean eskatu diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztea eskatu ahal izango zaie.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoien batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkezten ez baditu, bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira eta ez da lan-poltsarako izendatuko edo kanporatzea erabakiko du alkateak.

11.- Lan-poltsak. Kontratazioa-Praktikaldia



Prozesuko oposizio aldiko ariketak gainditu duten hautagaietako administrarien lan-poltsa osatuko da, eta udalak aldi baterako kontratazko dituen premien aurrean bertara joko du.

Alkate-udalburuak dagokien hurrenkeran deituko ditu, eta eskainitako lan-kontratuari uko egiten diona zerrendaren azken tokian jarriko da, edozein dela emandako arrazoia.

Lan-poltsa honek lehentasuna izango du eta aurretik dauden lan-poltsak bertan behera gelditzen dira hau onartzean.

Frogaldiak hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du; horren azken balorazioa gai/ez-gai izango da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txosten egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- Lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- Lantalderra moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin-behineko ezgaitasun-egoeragatik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzio edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Halere, eta kontratua hasi aurretik (edo frogaldia bukatu aurretik presazko kontratazioa izan denean) Bergarako Udakon kontratatutako mediku-zerbitzuak *bere osasun egoera eta lanpostu ezberdinaren eginkizunak betetzeko gai dela egiazatzeko* behar diren osasun azterketak eta frogak egingo dizkio, eta izangaiak horiek egiteari uko egingo balio edo *gai ez dela* emango balu kontratua bertan behera laga eta lan-poltsatik kanpo utziko du udalak.

12. Lan-poltsa

Opposizioa gainditu duten hautagaietako lan-poltsa osatuko da, eta aldi baterako premien aurrean bertara joko du udalak.

Lan-poltsak 1 urteko balioa izango du, onartzen denetik kontatzen hasita, eta urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, betiere Antolakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak besterik erabakiko ez balu.

Lan-poltsaren funtzionamendua Udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen dekretu baten bidez onartuta dagoen *Lan-poltsen Erabilerarako Barne Araudiak* jasotzen duena izango da (eranskin gisa dago jasota).

13.- Prozesuaren argitalpenak

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta web-orrian ere argitaratuko dira (www.bergara.eus).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangaik edo parte-hartzalek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako, eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitarte: Bergarako Udala, San Martin Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

14.- Gorabeherak



Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztieta.

15.- Inpugnazioak

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako epeetan eta forman.

16.- Dokumentazioa itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiet, lan-poltsarako izendatuko direnak izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta hiru hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du udalak.



ERANSKINA

1. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearena: Interesdunak (I. titulua: I. kapituluá).
2. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearena: Interesdunak (I. titulua: II. kapituluá).
3. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearena: Administrazio Publikoen jarduera (II. titulua: I. kapituluá).
4. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearena: Administrazio Publikoen jarduera (II. titulua: II. kapituluá).
5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearena: Administrazio-egintzak (III. titulua: II. kapituluá).
6. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearena: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (IV. titulua: 54, 62, 63, 64, 65, 66, 67, 68 eta 69 artikuluak).
7. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearena: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (IV. titulua: III. kapituluá).
8. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearena: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (IV. titulua: IV. kapituluá).
9. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearena: Egintzak administrazio-bidetik berrikustea (V. titulua: I. kapituluá).
10. gaia: 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5eko, Gipuzkoako Hazienda Lokalen Erregulatzailea: Udalerrak: tributu propioak: tasak: xedapen orokorra eta oinarri zergagarria eta prezio publikoak: xedapen orokorrak / kontzeptua.
11. gaia: 40/2015 Legea: Xedapen orokorrak, jarduera-printzipioak eta sektore publikoaren funtzionamendua: Organo kolegiatuen funtzionamendua (Atariko Titulua: II. kapituluá: 38 eta 39 artikuluak)
12. gaia: 40/2015 Legea: Xedapen orokorrak, jarduera-printzipioak eta sektore publikoaren funtzionamendua: Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (Atariko Titulua, V).
13. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: Udalerrria (II. titulua: I, II eta III kapituluak).
14. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: Toki-erakundeei buruzko xedapen orokorrak (V. titulua: 46 eta 48 artikuluak).
15. gaia: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: Udalerriko bizilagunen eskubide eta betebeharrok. Zerbitzuen kartak (V. titulua: II. kapituluá).
16. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (Atariko Titulua eta I. tituluaren I. kapituluá).
17. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5eko, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa: Datu-babesen printzipioak (II. titulua).
18. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5eko, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa: Pertsonen eskubideak (III. titulua).



Bergarako
Udala

19. gaia: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa. Pertsonen eskubideak. (15, 16, 17, 18 eta 21 artikuluak).

20. gaia. Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren funtzionamendua arautzen duen Bergarako Udaleko Ordenantza.

21. gaia: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena: Kontratuaren zatiak. Kontratacio-organoa (II. tituluko I. kapitulua).

23. gaia. 9/2017 Legea: Sektore Publikoko kontratuena. Kontratu txikiak. (29.8, 36.1, 118, 131.3 artikuluak)

24. gaia. Bergarako Udalaren administrazio elektronikoaren zenbait alderdi arautzen dituen ordenantza. Erregistro elektronikoa (5, 6, 7, 8, 9, 10 eta 11 artikuluak)



AYUNTAMIENTO DE BERGARA

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PARA LA CREACIÓN DE BOLSA DE TRABAJO DE ADMINISTRATIVOS/AS PARA RESPONDER A NECESIDADES DE CONTRATACIÓN

1.- Objeto de la convocatoria

Constituye objeto de la presente convocatoria la creación de una bolsa de trabajo de administrativos/as, mediante concurso-oposición, para responder a necesidades temporales de contratación o nombramiento.

Así mismo, también se utilizará para responder a necesidades de contratación temporal de auxiliares administrativos.

El puesto de trabajo está incluido en el **grupo de clasificación C1**, con el nivel retributivo correspondiente a cada puesto de trabajo o plaza. Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 3, con carácter preceptivo.

La bolsa de trabajo de administrativos/as se utilizará para atender las necesidades temporales que surjan en el Ayuntamiento de Bergara .

Asimismo, si así lo autorizaran las personas aspirantes, se podrá ceder a otros ayuntamientos o entidades públicas que tuvieran necesidades de contratación temporal y lo solicitaran expresamente.

La vigencia de la bolsa de trabajo prevista podrá prorrogarse siempre que no se genere antes bolsa de trabajo específica de auxiliar administrativo/a, en cuyo caso, una vez transcurrido el año inicial, esta última será las prioritarias para las necesidades de contratación correspondientes.

2.- Funciones

Las funciones del puesto de trabajo objeto de esta convocatoria son, entre otras, cualesquiera funciones correspondientes a las plazas de administrativo/a existentes en el ayuntamiento, y entre otras las siguientes:

- 1.- Todas aquellas que corresponden a la plaza del BAZ.
- 2.- Introducir y consultar información de expedientes en la base de datos de File Maker.
- 3.- Dar inicio a expedientes municipales y realizar su seguimiento...
- 4.- Informar a la ciudadanía, directamente de forma presencial o por teléfono, sobre los trámites relacionados con los expedientes municipales.
- 5.- Instrucción y finalización de la tramitación de las notificaciones.
- 6.- Completar la base de datos de terceros.
- 7.- Guardar los expedientes conforme a su clasificación.
- 8.- Realizar el seguimiento de los trámites en los expedientes.
- 9.- Expedir certificación del Padrón de Habitantes.
- 10.- Realizar notificaciones electrónicas.
- 11.- Registro y seguimiento de facturas.
- 12.- Seguimiento de la información de las páginas web, corrección, idoneidad...



13.- Cualquier tarea correspondiente a la categoría de administrativos/as, cuando así se la encomienden.

La persona que sea contratada temporalmente adaptará su calendario laboral a las necesidades del puesto de trabajo para el que se contrata, es decir ajustadas a las necesidades del servicio.

3.- Requisitos de las personas aspirantes

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para su admisión y, en su caso, participación en la convocatoria:

- a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras.

También podrán participar el cónyuge de las personas nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separada de derecho, así como sus descendientes y los/las de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos/as descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

- b) Tener cumplidos 16 años
 - c) Estar en posesión del título de bachiller, título de técnico de grado superior de FP o equivalente. En el caso de titulaciones extranjeras, estar en posesión de credencial acreditativa de su homologación.
